

**AUSCHWITZERA BIDAI OFIZIALA // VIAJE OFICIAL A AUSCHWITZ**GERNIKAKO ARBOLAREN KIMUAREN LANDAKETA
PLANTACIÓN DEL RETOÑO DEL ÁRBOL DE GERNIKA

2017-04-20 Oświęcim (Polonia) 20-04-2017

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, gazteok, jaun andreok, egun on. Eskerrik asko gurekin izateagatik.

Auschwitz eta Gernika, gertu gertutik ezagutu zuten basakeria, izua eta sarraskia. Gaur, hazi berri bat landatzeko eta zaintzeko elkartzen gara. Gerra eta indarkeria betirako atzean utzi nahi ditugu. Etorkizuneko bide berri honetan, gure bi herrien musika, dantza, hitza, kultura, aukeratu nahi izan ditugu bide lagun. Bakearen eta bizikidetzaren bideak ireki, jorratu eta zabaldu nahi ditugu.

Auschwitzeko lurrak eta Gernikako haziak bat egiten dute haritz sendo bat landatzeko. Gure nahia eta helburua berdina da: bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak mundu osoan sustatzea eta indartzea. Hori da, hemen elkartuta, gure aldarria, Nazio Batuen Erakundeari luzatu nahi diogun eskakizuna. Gure bi herrien indarrak elkartzen ditugu mundu zabalean entzuten ditugun gerra hots ilunei aurre egiteko, gazteen konpromisoaren bidez bakearen eta giza eskubide guztien hazia zabaltzen laguntzeko. Hemendik, Auschwitzeko lurretatik, Gernikako Arbolak bakearen fruitua eman ta zabaldu egingo du.

Auschwitz y Gernika, representan un grito desgarrado que perdura en el tiempo, que se mantiene de generación en generación. Un grito universal que, desde lo más profundo del corazón humano, clama contra la injusticia y el sufrimiento de las víctimas provocado por el sinsentido de la barbarie y el terror.

Frente a la guerra y la violencia plantamos este árbol de Gernika en esta tierra de Auschwitz, afirmando juntos nuestro compromiso y sembrando la esperanza en un mundo mejor. Un mundo respetuoso con la vida, la dignidad y los derechos humanos de todas las personas.

En este simbólico Parque de Zasole plantamos el árbol roble de la paz de Gernika. Celebramos este acto juntos, reivindicando la colaboración; con la participación y la palabra de las generaciones más jóvenes de nuestros pueblos, con la mirada puesta en el futuro. Celebramos este encuentro de nuestras culturas con la alegría de la música y la danza; compartimos tierra y raíces, queremos contribuir a fortalecer el compromiso con un futuro mejor para toda la humanidad.

Auschwitz y Gernika, hermanadas, simbolizan la necesidad humana de paz, justicia y convivencia. En estos momentos, en que vuelven a sonar inquietantes tambores de guerra en el mundo; como seres humanos, desde Auschwitz y desde Gernika, reclamamos y exigimos a la Organización de Naciones Unidas la Paz como Derecho Humano universal.

Desde la experiencia de sufrimiento vivida en el pasado, queremos compartir el compromiso de convivencia en el futuro. Hemos unido una tierra y una semilla milenarias. La silueta del árbol de Gernika es hoy, desde aquí y para siempre, la silueta de la dignidad humana. Este es el más alto valor que cabe defender, respetar y promover: derechos humanos para todas las personas en todo el mundo. Nos mueve el mismo objetivo: reivindicamos el Derecho Humano a la Paz.

Gernikako Arbola, eman ta zabal zazu munduan friutua.

Árbol de Gernika, extiende desde esta tierra de Auschwitz por todo el mundo tu fruto de paz, convivencia, democracia, derechos humanos y libertad.

Gernikaren eta Euskadiren izenean, eskerrik asko Auschwitz!